



DISKO KRITIKA

Jose Ignazio Ansorena

Pagoarteko soinuak

Mendizale garenok ondo ezagutzen dugu pagadien ederra. Hosto argi zurrupatzaileek itzal magikoa sortzen dute, freskagarria eta laharrik hazten uzten ez duena. Pago arteko bidea garbia da beti, sasirik gabekoa. Izenari omen eginez, ezaugarri bera izan du hamar urtez martxan izan den Pagoarte Elkarteak.

Euskal artearen laborategia. Horixe zen Pagoarte: euskal artearen inguruan laboratu egiten zuten, aprobak, esperimentuak, dastaketak... Igarri da artisten sena zegoela atzean. Dagoeneko, hamar urte beteta, amaitu du ibilbidea. Utzi du, ordea, amaiezina den arrastoa. Pagoartek egindakoek oihartzuna izango baitute Oiartzundik kanpo ere. Freskagarria eta laharrik hazten utzi ez duena.

Erreparatu nahi diot bereziki musika arloan egindako lan bati: *Oiartzungo Cavaillé-Coll organoarentzako musika* deitzen den grabazioari. Ondo mamitutako kultur ikuspegia dago lan honen oinarrian.

Aurrenik, pagoartezealek ondo konturatu dira herriaren aberastasun handia dutela organo horretan. Eta zaintzeko modu onena eguneko musika jo eta entzun araztea dela.

Horrela ba, abiatu dira gure garaiko konpositoreei bereziki organo horretarako sortutako obrak eskatzen. Organozale ez denak agian ez du jakingo, baina tresna honek duen konplexutasunarengatik, obra guztiak ez dira berdin ematen organo guztietan. Zein garaiko, tamaina eta organogilearen lana den, aukerak ere halakoak. Sortzaileak hautatzerakoan ere begi zorrotza izan dute: Gorka Cuesta, Ramon Lazkano, Peio Zabalette eta Loïc Mallié.

Hurrengo urratsa jotzaile egokiak bilatzea. Zerrenda ez da inondik ere makala: Loïc Mallié bera eta Oskar Candendo organoan, Urko Arozena eta Iñaki Telleria txa-

laparta eta perkusioan, Aitor Arozena txistuan, Fernando Latorre baritonoa kantari...

Grabatzea ondoren. Mikel Fernández teknikari probatua jarri zuten lan horretan eta honek egin-kizuna ederki bete ere.

Azkenik, argitara ematea. Liburuxka ezin txukunago batez hornitua. Obra guztien aipamenak Pello Zabalaren eskutik. Organoaren historia Xabier Alberdik atondua. Organoaren ezaugarri guztien zehazpena eta organo jotzaile famatuen irizkiak berari buruz. Egile eta jotzaileen curriculumak eta obren testuak orriak borobiltzeko. Dena paper atseginean, ongi diseinaturik eta argazki egokiez apainduta.

* * *

Hori guztia hasiera besterik ez da. Inor bazkaltera gonbidatu denean egiten zaion harrera bezalakoa. Horren ondoren janariak datoz. Hortxe dago –aurreko guztiari esker bere neurrian estimatu ahal izateko moduan– lan honen benetako balioa. Esperientzia berria da. Punta puntako sukaldaritza berriaren menua.

Niretzat, noski, txistu eta organo obra da bereziki kuttuna. Aitortu behar dut, baina, grabazio osoa dela garaiko artearekin birradiskitzeko aukera. Eta topiko asko birrintzekoa ere bai.

Topiko oso zabalduak badira: organoaren indarra aipatzen da. Honetan, indar boteretsu horrekin batera, leuntasun sarkor eta irakigarria ere nabaritzen du entzuleak. Organoa orkestra bat dela irakurtzen da sarri. Ez da egia. Organoa ez da inondik ere orkestra baten imitazioa. Organoa tresna jatorra da, orijinala, ez dago bera bezalakorik.

Musikaren misterioarekin topatzeko hamaika era desberdin eskaintzen ditu eta komunikazio artistikoan murgiltzeko bide ezin oparoagoa ematen. Gure garaiko musika aspergarria dela eta ezin uler daitekeen topikoa ere deuseztatuta gertatzen da grabazio hau entzunda.

Jar zaitez entzutera, ez autoan zoazela edo zerbait irakurtzen ari zarela. Horretara bakarrik. Esperientzia benetan berritzaileari zabaldu iezaiozu zure gogoa. Emaiozu lan honi merezi bezalako aukera. Berak ondo baino hobeto ordainduko dizu.

* * *

Mendi bideetan barrena urte luzeetan hazitako pagadia eskertzekoa izaten da. Pagoarte Elkartearen lan mardul, zirikatzailerik eta kalitatezko honek esker gutxi jasoko du agian gure egunotan. Etorkizuneko lana delako. ■



Oiartzungo Cavaillé-Coll organoarentzako musika

Batzuen artean

PAGOARTE ELKARTEA

Iraupena: 53'50" (CD1)
44'56" (CD2)

Prezioa: 23,50 euro